

21. LITERATUR LEHIAKETA

orio-aia

- 1 'Euskaraz Gazte' literatur lehiaketaren helburua idazteko zaletasuna suspertzea da Orioko eta Aiako gazte-jendearen artean.
- 2 Lehiaketara aurkezten diren lanak euskaraz idatziak izango dira.
- 3 Lanak jatorrizkoak eta inon argitaratu gabeak izango dira. Ez da onartuko beste lehiaketaren batean saria jaso duen lanik eta, ezta ere, beste hizkuntzaren batean idatzi eta lehiaketarako euskaratutakorik.
- 4 Lehiaketan parte hartzeko, oriotarra edo aiarra izan behar da edo, bestela, Orion edo Aian bizi, eta 16 urte beteta izan behar dira.
- 5 Lanen luzera librea izango da.
- 6 Epaimahaiak gaiaren gertutasuna baloratuko du.
- 7 Lehiaketak bi atal izango ditu: ipuina eta bertsoa (edo olerkia).
- 8 Gaia librea izango da.
- 9 Lanak aurkezteko era: Lanak, onartua izateko, titulua besterik ez du izango agerian. Idazlearen izena ezin izango da inon aipatu. Lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztu beharko da, barruan egilearen datuak jasoko dituen eta kanpoan bere lanaren titulua besterik agertuko ez duena. Adierazi beharreko datuak: egilearen izen-deiturak, adina, helbide elektronikoa eta telefonoa.
- 10 Pertsona batek ezin dezake sari bat baino gehiago jaso atal bakoitzean.
- 11 Sariak hauek izango dira:

Ipuinen atala

 1. saria: 300 euro
 2. saria: 200 euro
 3. saria: 150 euro
 Bi accessit, bakoitza 100 eurokoa

Bertso edo olerkien atala

 1. saria: 300 euro
 2. saria: 200 euro
 3. saria: 150 euro
 Bi accessit, bakoitza 100 eurokoa
- 12 Epaimahaia. Epaimahaia Orioko Udaleko euskara teknikariak, Aiako kultur teknikariak eta KARKARA aldizkariko kide batek osatuko dute. Epaimahaiak hutsik utz ditzake sariak.
- 13 Lanak aurkezteko tokia eta epea. Lanak Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuan edo Aiako kultur etxean aurkeztuko dira. **2014ko urriaren 31** izango da horretarako azken eguna.
- 14 Antolatzaileek berea izango dute saritutako lanak argitaratzeko eskubidea. Gainontzeko lanak itzuli egingo zaizkio eskatzen dituenari.

